

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda: iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, C1 taldeko ingurumeneko teknikaria plazari dagokiona

Alkatearen abenduaren 19ko azaroaren 221/2023 Ebazpenaren bidez hau ebatzi da:

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduko ALHAOn 144zenbakian argitaratu dira, eta deialdiaren laburpen bat 2023ko maiatzako 11eko BOEn (112. zenbakia.).

Amaitu da eskaerak aurkezteko hogeit egun balioduneko epea, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzentzekoa ere. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Burgeluko Udalean ingurumeneko teknikaria plaza bat (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzekoa) hautatzeko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien bahin betiko zerrenda onartzea.

IZEN-ABIZENAK	NAN	ONARTUA/ BAZTERTUA	PUNTUEN AUTOBALIAZIOA
HODEI DEL OLMO LEON	727**580V	Admitida	100,00000
LEIRE DUEÑAS URCELAY	727424**E	Admitida	80,00000
LEIRE DIAZ DE GUEREÑU ECHAVARRIA	7273**72B	Admitida	80,00000
MARI CRUZ POLO PEREZ DE ONRAITA	446**380W	Admitida	80,00000
IGOR SANCHEZ IDOETA	7**3181A	Admitido	20,90420
IONE DE LA LLERA LEKUONA	5801**87W	Admitida	20,00000
AITZIBER SARASOLA BENGOTXEA	34106**7W	Admitida	20,00000
MARINA GARMENDIA ELIZBURU	7284**98C	Admitida	20,00000
NAROA SARASUA RODRIGUEZ	7***8992S	Admitida	17,00000
EGOITZ IRADIER MARTINEZ DE ALBENIZ	***80074V	Admitido	16,59442
LOREA FERNANDEZ DE BARRENA CARDOSO	72856**3T	Admitida	10,30140
SANDRA RODRIGUEZ MARTIN	72**7391C	Admitida	10,00100
UNAI URIARTE AMIANO	**144173T	Admitido	10,00000

Bederatzigarren oinarrian jasotakoarekin bat etorritik, deialdian plaza bat sartu denez, autobalorazioan 20,90420 puntu edo gehiago lortu dituzten eskaerak baloratu behar dira.

Bigarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiak agiriaren bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendu honek barnean hartzen ditu eskaeran alegatutako merezimendu guztiak, zortzigarren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar direnak izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite eredu jasotzen dituen.

Hirugarrena. Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiak adierazi beharko dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiltzeko titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

Laugarrena. Agiriak deialdia egin duen administrazioaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Era berean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Bosgarrena. 8.2. oinarriaren arabera, baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara azterketa egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsua aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean errekurtsua ebatzi gabe badago, kautelaz egin ahal izango dute euskara azterketa. Egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezestekoa bada.

Seigarrena. Esandako hautaketa prozesuan epaimahai kalifikatzaileetako kide hauek izendatzea:

	TITULARRA	ORDEZKOA
Epaimahaiburua	Pablo Martínez de Arbuló Echevarria	Alexander Rodríguez López
Bokala	Vanessa Domínguez Casal	M ^o del Carmen Rojo Pitillas
Bokala	Jose Ignacio Goenaga Garralda	Amado Abascal Calleja
IVAPeko ordezkaria	Carmen Luque Moreno	Izaskun García Zorzano
Idazkaria	María Jesús Sáez de Jauregui Suso	Jorge Gallo Medina

Zazpigarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta erakunde honen iragarki taulan eta udalaren web orrian ere www.elburgo-burgelu.eus.

Zortzigarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bidearen, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsuak batera jartzetik. Aurrekoetz gain, interesdunak egoki irizitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango du.

Era berean, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako egoeretako batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urteetan izangaia prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritzarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundeetan.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizioz egiaztatuko ditu eta/edo espedienteetan sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zazpigarren oinarria):

- NAN/AIZ.
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak.
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:),
..... prozedurari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:

- Titulu akademikoa.
- Euskarako hizkuntza eskakizuna.
- IVAPen bidez egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

Aurka egiteko arrazoiak:

.....
.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....
.....

.....,(e) koren(a)

Sin.:

II. ERANSKINA

BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:),
..... erakundearendeialdiari
dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa..... titulua erabiliko dut,
egun honetan lortua:

.....,(e) koren(a)

Sin.: